

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2022ko urtarrilak 14 • 1212. zenbakia



URTEETAKO LANAREN ERREKONNOZIMENDUA

matrikula zabalik

Urtarrilaren 28ra arte

aurrez aurreko ikastaroak / autoikaskuntza

Urte berri on!

HABEren azterketa ofizialak
prestatzeko aukera

Sostoa 1, 1. solairua Tf: 943 201 379 / 607 534 357 eibar@aek.eus

aek

EUSKARAZ

ZABALDU AUKERAK

DESCUBRE TODO LO QUE TE OFRECE EL EUSKARA



MATRIKULA EPEA ZABALIK

Urtarrilaren 28^{ra} arte MATRIKULA ZABALIK

2021-22 ikasturtea

- MAILA GUZTIETAKO euskara ikastaroak

1. MAILA		2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	
A1	A2	B1	B2	C1	C2
DINARRIZKO ERABILTZAILEA		ERABILTZAILE AURRERATUA		ERABILTZAILE ADITUA	

16 urtetik gorakoentzat

**Azterketa prestakuntza
HABEko titulu ofizialak**

ordutegi zabala

**TARIFA BEREZIAK: %20, %50 eta %75eko deskontua
KONTSULTATU**



Bista Eder, 10 -PORTALEA-
euskaltegia@eibar.eus
Tfnor: 943 70 09 12

*Eibarko
Udal
Euskaltegia*



La Salle Eibar



Zatoz gu ezagutzera!

2 urtetik 16 urtera

Matrikula Epea:
Urtarrilaren 17tik 28ra

943202133-943121698
www.lasalleeibar.eus



**Hiru iritzi, eta zerbait gehiago NEXT funtsei buruz**

1- Endika Perez, ELA sindikatuko Gizarte Ekintzako idazkariaren ustez, NEXT funts horiek "murrizketen eskutik datoz"; izan ere, "Espainiako Estatu behartuta egongo da pentsioen sisteman erreformak egitera, lan-erreforma ez indargabetzera edo epe ertainean defizit publiko kontrolatzeko neurriak hartzera, funts horiek jaso nahi badi-tu". Gainera, "milioiko euria zaparrada" ez dela "espero zen adinakoa" izango uste du, Espainiak baliabide propioekin jasotzen duenaren % 70 itzuli beharko baitu.

2- Garbiñe Aranburuk, LAB sindikatuko idazkari nagusiak, lagun-tza horien "kudeaketa zentralista eta iluna" salatu du. Gainera, garapen "paradigma berri demokratikoago" bat eraikitzea aldarrikatu du; langi-leak, korporazio pribatu handien aurrean lehenetsiko dituen.

3- Eduardo Junkera, Adegiko presidentea, ez dago ziur Europako funtsen aukera aprobetxatuko ote den, eta NEXT funts horiek "hurrengo belaunaldiari kalte egingo dien zorpetzean oinarrituta daudela nabarmendu du".

4- Estazio-Azitain trenbidearen estaldurak kaltetutakoen plata-formatik galdera batzuk egiten dizkiogu geure buruari: eibartarroi zenbat kostatuko zaigu proiektu hau? Proiektua itzuli beharrik gabeko diru-laguntzekin soilik finantzatuko al da? NEXT funtsetatik mailegu itzulgarriak eskatuko dira? (Mailegu itzulgarriak dagokien interesarekin itzuli behar direla badakigu). Zein zor hartuko dugu Eibarren gure gain espaloi-paseo hau altueran eraikitzean? Itxaron beharko dugu egunen batean altuerako espaloi-paseoa eraikita egon arte, benetako kostu ekonomikoa ezagutzeko? Uste dugu oraindik garaiz gaudela proiektu hau bideratzeko.

Eraikuntza honi: Ez! Gure izenean: Ez! Hiribarruko paseoa eta bidegorriari: Bai!

Laura Gomez

"Fruta-denda muntatu eta kudeatzea erlatiboki erraza da; ez du behar inbertsio handirik. Saltzaile berriek ordu gehiago sartzen dituzte dendan; gogor egiten dute lan. Arraindegiekin aurkako gertatzen da: arrainak manipulazio bat eskatzen du, fruta jatea erraza da. Arraindegi bat ixten bada, ez du beste batek irekitzen. Frutadendak ez du hotzik behar; arraindegiak, berriz, instalazioa behar du. Hastea kostu handiko kontua da. Arraindegiak ixten ari dira; haien ordutegia arazoa da, gehinek bakarrik goizez irekitzen dutelako. Frutadendei gauza bera pasatu zitzaizen, baina arrataldez irekitzen hasi behar izan zuten".

AITOR ARGOTE, Mercabilbaoko zuzendari nagusia

"Egunotan ministro bat Galiziatik mintzatu da, abiadura handiko trenbide baten inaugurazioan, mosu irri emangarrian. Garraio-bideen ministroa, Bartzelonakoa izan arren, Madril duela buruan. Tren horri esker, bota du, Galiziak utziko dio leku isolatua izateari. 1.500 kilometroko kostaldea duen herrialdea, herrialde anaiarekin 300 kilometroko muga duena, egon daiteke isolaturik? Ez da Madril izango isolatuta dagoena? Gogoan dut abendu hasierako ekaitza hurbiltzean, gerora uholde izugarriak utziko zituen, albistegietan zubiaz disfrutatzen ari ziren bidaiariak Iparraldetik (hau ere nondik ikusita) lehenago itzultzeko eskatzen zutela, alderantzizko bidea inork egitea guztiz irrelebantea balitz bezala.

ANGEL ERRO (zutabegilea)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

NORK DAKI.- Batek badaki, auskalo. "Gaur, biharbada, itxuriari begiratzeko moduko aberatsen batzuek izango dira. Nork daki?"

NUN DANIK BEZ.- Norbait nondik nora dabilen ez dakigula adierazteko. "Zaiñ eta zaiñ eta nun danik bez".



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkarte
HELBIDEA
Urkizu, 11. 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285
FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Jose Luis Gorostegi, Silbia Her-nandez eta Yanire Sagredo
ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINUA
Maku Oruezabal
MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria

ARGAZKI ARLOA
Maitane Campos eta
Malen Illaramendi
HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Belen Ulazia
TELEFONOA
943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA
Ekhi Belar
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
8.150 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)





Eibarko atzo goizeko ipuiñak, Azpilikueta aita-semeak marrazki bitartez kontatuta

Aurreko aldizkarian agindu genuen bezala, hemen daukazue “Atzo goizeko ipuinak (bene-benetakuak)” izenburuko bilduma osatzen duten beste hamar biñetak. Ego Ibarra batzordeak eskatuta, Jose Antonio Azpilikueta marrazkilariak eta haren seme Martinek gure herriaren historiari lotutako hainbat pasadizo eta istorio kontatu dizkigute, urtean zehar marrazten joan diren biñeten bitartez.

Eibarko herriaren sorreraren 675. urteurrenaren (1346-2021) aitzakiarekin abiatu zuen proiektua Ego Ibarrak, iazko otsailan, hain zuzen ere Eibar herriaren sorrera kontatzen duen biñetarekin. Azken biñeta, berriz, iazko abenduan eman zuten argitara. Horrela, bi marrazkilariek 20 biñetako bilduma osatu dute guztira. Oraingoz bakarrik Interneten argitaratu dituzte marrazkiak, Ego Ibarra batzordearen webgunean, “Atzo goizeko ipuinak (bene-benetakuak)” izenburuko atalean.

Uztailetik aurrera kaleratutako biñetetan jaso dituzten gertakariak hauek dira: Konbentzioko gerra, herriaren suntsiketa eta Marruko gerrillaria; A8 autobidearen Txontako V-aren erakuntza; “frantsesadak” eta Udalak herri-lurra saldu beharra; Urriko Iraultza eta 1934ko urriaren 5eko gertakariak; Untzagako dorreak Salón Teatroaren lekua nola hartu zuen; Jai-Alai dantzalekuak 60-70eko hamarkadetan izan zuen garrantzia; gerraostea eta herriaren berreraikuntza; Eibarko jai eta ohitura zaharrak; eta, azken biñetan, aspaldiko kontuak albo batera laga eta etorkizunera salto egin nahi izan dute marrazkilariek, beste 675 urte igaro ondoren Eibar nolakoa izango den jakin nahian edo.

Horiek guztiak kontatzeko orduan umorea eta ironia gidari izan dituzten arren, marrazkietarako gaiak aukeratzeko orduan historia liburuetan eta bestelako agirietan jasota dagoenari jarraitu diote Azpilikueta-arrak, gure herriaren iraganari lotuta dauden “bene-benetako ipuiñak” gogora ekartzeko.



Azokoze Koirunak
iPuiñak
(BENE-BENETAKUAK)



Azokoze Koirunak
iPuiñak
(BENE-BENETAKUAK)

"JAI ALAI" dantzalekua, musikaren eta aisialdiaren erreferente bihurtu zen 60-70 hamarkadetan.



Azokoze Koirunak
iPuiñak
(BENE-BENETAKUAK)

Oraindik orain bizirik jarraitzen dute festa batzuk, Gaztainerre, San Blas, Santa Ageda, San Juan Sorba, nekazari jatorrikoak, baina gurean orain arte iraun dutenak.



Azokoze Koirunak
iPuiñak
(BENE-BENETAKUAK)

1952ko ekainaren 3an "Yo también soy de Jalisco" pelikula ematen ari zirela, egitura gutxia behera erori zen. Ebakuazio askarrari esker, ez zen biktimarik egon, baina zauritu ugari.



Azokoze Koirunak
iPuiñak
(BENE-BENETAKUAK)

1940ko irailean Joaquin Dominguez Eloseguik eta Jose Antonio Pontek (Regiones Devastadaseko arkitektoak) Eibarko urbanizazio-plana egin zuten.



Azokoze Koirunak
iPuiñak
(BENE-BENETAKUAK)

BEMUNTZAREN MUSEOA MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA
AIZEN KORNIAN, IZALAN A PAKAN LAGAKO DOGU





Juan Antonio Aznárez eibartarrak Espainiako armadako artzapezpiku kargua hartu du

>>> Juan Antonio Aznárez eibartarrak Espainiako armadako artzapezpiku karguari zin egin zion martitzenean Madrilan, Margarita Robles Defentsa ministroa buru izan zuen ekitaldian. Iruñeako eta Tuterako ordezkio artzapezpikua zenak kargu horiek laga zituen iazko azaroaren 15ean, Aita Santuak Espainiako artzapez-

piku militar izendatu zuenean. Horrela, 2021eko urtarrilean COVID-19arengatik hil zen Juan del Rioren lekukoa hartu du eibartarrak.

Aznárez 1961eko urtarrilaren 14an jaio zen Eibarren eta 13 urterekin Tuterara joan zen bizitzera. Iruñean eliza ikasketak egin zituen eta 1990eko urriaren 27an apaiz ordenatu zuten.

Eskubaloiko argazkiak biltzen ari dira

>>> JD Arrate sortu zenetik 75 urte eta Eibar Eskubaloit taldea sortu zenetik 10 urte bete direla eta, erakusketa antolatzen ari dira sasoi hartako argazkiekin. Ondoren, bildutako argazki guztiak artxibo digital batean islatzeko asmoa dago eta, horren digitalizazioa amaitzeko azken eguna urtarrilaren 28a da. Hori dela eta, norbaitek argazki edo bideoren bat iza-

nez gero, egun horren aurretikeskubaloiaeibarren@gmail.com helbidera bidaltzeko eskatu dute.



Urkora igota hasi zuten urtea eibartar askok aurten ere

>>> Urteroko ohiturari jarraitu diote eibartar askok aurten ere eta Urkora igota eman diote ongi-egietorria 2022. urteari. Eguz-

kia eta hego-haize epel-epela lagun, tontorrera igo zirenek argazkia egin zuten, urte berri honen lehen eguna oroitzeko.



Presoen eskubideen aldeko urratsak eskatu ziren Eibarren ere

>>> Milaka lagunek eskatu zuten zapatuan euskal presoen eskubideen aldeko urratsak egiteko, Sarek deituta Euskal Herri osoan egindako 200 bat mobilizaziotan. Osasun egoeraren ondorioz, aurten ere ezin

izan da presoen eskubideen aldeko manifestazio bateratua egin Bilbon, baina horren ordezkirik hiriburu eta herri askotan irten ziren herritarrak "salbuespen egoera" amaitu dadila eskatzen, baita Eibarren ere.

www.aldatze.eus

aldatze

ALDATZE DENOK GARA

MATRIKULA - IZEN EMATEA - ETA BISITA GIDATUA EGITEKO (urtarrilak 15 eta 22) →



Ibilbide osasuntsuak eskainiko dituzte martitzenero

>>> Gipuzkoako Minbiziaren Kontrako Elkarteak ekimen berria abiatu du Debabarrenean: astean behin, martitzenero, bost kilometro inguruko ibilbideetan parte hartzeko aukera eman nahi diete herritar guztiei. Bat egitera animatzen diren guztiak elkarrekin Eibarren duen lokalean (Ardantza, 11) abiatuko dira, 10:00etan. Irteera bakoitzean ibilbide ezberdina egingo dutela aurreratu dute arduradunek eta batzbesteko iraupena ordu eta erdi ingurukoa izango da.

Informazio zabalagoa nahi izanez gero, edo parte hartzeko

izena emateko, <https://www.contraelcancer.es/es/talleres/rutas-saludables-eibar> helbidean sartu zaitezke. Jarduera honekin osasunari mesede egiten dioten ohiturak herritarren artean zabaltzea nahi dute, "horrela, minbizia bezalako gaitasunak izateko aukerak murriztuta". Elkartetik azpimarratu dutenez, edozeinek dauka irteera hauetan parte hartzeko aukera, erraz egiteko moduko ibilbideak izango dira eta. Jarduera doakoa da eta "Mugiment pertsona aktiboak" ekimenaren babesia dauka.

Ikus-entzunezko instalazioetarako proiekturako lehiaketa

>>> Udalak lizitazioa atara du Erreal Plazia eraikineko ikus-entzunezko instalazioetarako proiektua egikaritzea. Aurreikusitako aurrekontua 156.879 eurokoa da (BEZa barne) eta lanak egiteko epea bi hilabetekoa. Eskaintzak aurkezteko epea zabalik dago otsailaren 14ra arte. Proiektuak beharrezkoak diren azpiegiturak jasotzen ditu argiteria, soinu eta komunikazio arloetan.

Beharrezkoa den ekipamendua zehazteko, bilerak egin dira udal teknikariek eta Coliseo antzokiko arduradunekin, azken horiek izango

baitira ikuskizun-areto berri honen gestioaz arduratuko direnak. Jon Iraola alkatearen hitzetan, "sistema hauen instalazioarekin, Eibarko Udalak beharrezkoa den teknologia eta tresneria emango dio eraikinari, bermatu ahal izateko plaza estalian antolatzen diren aisialdiko ekitaldiak eta jarduera kulturalak ahalik eta kalitate handienarekin egingo direla, herritarrei esperientzia oso bat eskainiz".

Lehiaketa publikora aurkezteko jakin beharreko guztia Udalaren webgunean ipini dute eskuragarri.





Centro de fisioterapia
MIS

Manu Sánchez



KIROL FISIOTERAPIAN ADITUAK

- Fisioterapia
- Osteopatia
- Kirol-masajea eta terapeutikoa
- Errehabilitazioa
- Kirol lesioen tratamendua
- Elektroterapia

Txaltxa Zelaiko parkingetik 50 metrora, herriaren erdi-erdian

Juan Gisasola, 14 • Tel.: 943 127 078 • EIBAR (Gipuzkoa)



Trio Medianoche denak hunkitzea lortu zuen

>>> Antena 3 telebista kateko “La Voz Senior” saioan egon ziren Trio Medianoche taldekoak aurreko zapatuan eta harrera ezin hobea izan zuten eibartarrek “Audiciones a ciegas” izenekoan: Los Panchos taldearen “La hiedra” kantuarekin epaimahaikideak erabat hunkitzea lortu zuten eta, abesten amaitu eta jarraian, David Bustamante, Niña Pastori, Antonio Orozco eta José Mercé saioko “coach”-ek zoriondu zituzten, emanaldiaren profesionaltasuna goraiapatuta. Azken egunotan beste askok zoriondu dituzte, batzuk zuzenean eta beste askok sare sozialen bitartez helarazi dizkieten mezuak idatzita, eta hirukote artistikoa osatzen duten Jesus Bastidak, Pedro Bartrak eta Bernardo Aguilera beraien esker ona azaldu nahi diete guztiei, erakutsitako babesarengatik.

Udalbatzak Errebalen zuhaitzak landatzeko hartutako konpromisoa betetzea eskatu dute berriro

>>> Orain dela egun batzuk Errebalen ipini dituzten lorontzi handien harira egindako adierazpenetan, izako abenduaren 1eko Udalbatzarrean adostutakoa ez dela bete salatu du Errebal Bizirik elkarteak: “2008an Merkatu Plaza eraitsi zutenean moztutako 13 zuhaitzak beste batzuegatik ordezkatzeko eskatzeko Errebal Bizirik elkartearen mozioa onartu zuen Udalbatzak 2021eko abenduaren 1ean. Izan ere, Hirigintza-arauen 9.13.21 artikuluan jasota dagoenez, zuhaitz bat mozten den bakoitzean espezie bereko edo antzerako motako beste zuhaitz batengatik ordezkatu beharra dago”.

Errebal Bizirik-en arabera, “aipatutako plenoan Iraola jaunak esan zuenez, zuhaitzak udalerrian landatu dituzte, arauak ez duelako zehazten berriak aurrekoak zeuden toki berean landatu behar zirenik. Edozein modutan ere, zuhaitz berri horiek non landatu dituzten toki zehatzik ez zuen aipatu”. Orain



dela urtebeteko Udalbatzarrean Iraolak esandakoa gogora ekarrita, “moztutako zuhaitzak berriengatik ordezkatu dira, horretan ez daukat zalantzarik. Baina, hala ere, egingo diren lanetan zuhaitzek tokia izango dute, beti izan duten bezala”.

Gauzak horrela, harrituta eta haserre daude: “Benetan uste dute horrela ari direla betetzen Udalbatzarrak onartutakoa? Zer gertatzen zaie Errebalen? Badute zerbait ondo egiteko asmorik?”.

Mankomunitateak Gabonetako izei naturalak jasoko ditu

>>> Debarreneneko Mankomunitateak Gabonetako zuhaitz naturalak bilduko ditu Eibarren eta eskualdeko beste herrietan, gaur eta astelehenetan. Azpimarratu dutenez, bakarrik izei naturalak jasoko dituzte (hau da, plastikozkoak edo beste material batzuetakoak ez dira bilduko).

Zerbitzuko arduradunek eraman beharreko izeiak edukiontzien aldamenean laga beharko dira, 20:00etatik 21:00etara bitartean, eta aurrez 943 700 799 telefonora deitu beharko da, abisua eman eta Mankomunitateak bilketa nola egin antolatzeke. Mankomunitatetik



adierazi dutenez, “gehienetan Gabonetako izei naturalek sustairirik ez dutenez, ezin izaten dira birlandatu eta, horregatik, konposta egiteko material bihurtuko dira”.

Asteburuan abiatuko da Domekak Kirolian egitasmoa Ipuruan

>>> Domeka honetan ipiniko da martxan Ipuruako kiroldegian 8 eta 11 urte arteko haurrei kirola egiteko eta jolasteko aukera ematen dien Domekak Kirolian izeneko egitasmoa. Jarduera domekero eskainiko dute, 17:45etik 19:45era, martxoaren 27ra arte. Parte hartzera animatzen diren umeek kirol eta jolas ezberdinak uz-

tartuko dituzte, eta helburu nagusia ondo pasatzea izango da. Hori horrela izateko, Astixako bi begirale egongo dira jarduera dinamizatzen Ipuruako kiroldegiko kantxa berdean. Domekak Kirolian egitasmoan parte hartzeko ezinbestekoa izango da Kirol Patronatuko txartela edukitzea, baina jarduera doakoa izango da.

Aurrematrikulak

HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN

Urtarrilaren 17tik 28ra



EIBAR BHI 943 89 92 21
ISASI, 37 www.eibarbhi.eus
DBH1, 2 + Gautenako gela orokorra



EIBAR BHI 943 89 92 62
JARDIÑETA, 3 B www.eibarbhi.eus
DBH 3, 4 + Batxilergoak + ZIG



AMAÑA 688 68 72 89



ARRATEKO ANDRA MARI 943 20 72 35



J.A. MOGEL IKASTOLA 943 20 84 87

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA
AURREMATRIKULA URTARRILAREN 17tik 28ra
www.euskadi.eus/hezkuntza

ZURE ZAIN GAUDE

Euskadi, auzolana
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



SAN ANDRES 943 20 79 95



BAIKARA URKIZU 943 88 91 47



4 urte eta borrokan tinko

Pentsiodunen Mugimenduak 4 urte beteko ditu bihar, urtarrilak 15. Pentsioen murrizketei “aski da” esateko irten ziren kalera 2018an eta, oztopoak oztopo, euren aldarrien ahotsak indartsu jarraitzen du eta jarraituko du, borrokarako arrazoiak daudela uste dutelako. Horrela, bihar berriz aterako dira kalera eta gizarte osoari batzeko deia egin diote, guztion artean egin beharreko borroka delako.

Bihar, 12:00etan, Eibarko Pentsiodunen Taldeak manifestazioa egingo du Untzagatik abiatuta, ‘Lau urte eta gero borrokak darrai’ goiburuarekin. Izan ere, mugimendua sortu zenetik lau urte betetzen diren egunean, pentsiodunek borrokarako arrazoi sendoak daudela esaten jarraitzen dute. Eurek dioten bezala: “Berdin dio nork gobernatu, guk pentsioak defendatu”. Gobernu aldaketak egon arren, pentsiodunen ustez Espainiako Gobernuaren planek murrizketa-politikari eusten diete finantza-botereen benetako helburu diren pentsio-plan pribatuak bultzatzeko. “Jendea banakako, enpresako edo sektoreko pentsio-funts pribatuetan izena ematera bultzatu nahi dute, pentsio publiko txikien osagarri txiki bat bermatzeko eta aseguru-etxeek, bankuek eta gainerakoek funts horiekin jolasteko, justifikaziorik gabeko onura itzelak lortuz”, diote.

Biharko manifestazioari begira, honakoak dira pentsiodunen aldarrikapenak: Batetik,

2011., 2013. eta 2021. urteetako pentsioen erreformen zati atzerakoiak indargabetzea eta ez aplikatzea. Bigarrenik, KPI errearen igoera berehala aplikatzea 2021eko atzerapean eta pentsioen errebalorizazioan. Hirugarrenik, 1.800 euroko gutxieneko pentsioa eta 1.200 euroko gutxieneko soldata. Laugarrenik, genero arrakalarekin amaitzea eta alarguntza-pentsioa %100ekoa izatea. Eta azkenik zera adierazten dute: “Ez dago pentsio duinik soldata duinik gabe; gaurko soldatei dagozkien kotizazioek gaurko pentsioak ordaintzen dituzte”.

Pentsiodunei zuzenean eragiten dieten aldarrikapenak dira, baina pentsiodunei eragiten dieten arazoak ez daude gizartetik isolatuta eta ez dira pentsiodunen ardura bakarrik, gizartearen gehiengoarena baizik. “Sindikatu eta gizarte-kolektibo guztiei mobilizazioarekin bat egiteko gonbitea egiten diegu, gure pentsioak jokoan daudelako eta baita hurrengo belaunaldietakoak ere; are la-

rriago gainera, lan-erreformak ez dituelako kalitatezko enpleguak eta soldatak bermatuko. Beraz, gaur egungo langileen (bereziki gazteenen) pentsioen etorkizuna larriagotu egingo da eta erretiroa hartzean miseriazko pentsioak jasoko dituzte”, pentsiodunen berbetan.

Horregatik, aipatutako aldarrikapenak egiteaz gain, beste hauek egiten dituzte: soldadari dagokionez genero arrakala ezabatzea (“emakumeek gizonek beste kobratu behar dute lan bera egiteagatik”, diotenez), eta lan-harremanei eta pentsioen tratamenduari buruzko lege kaltegarriak hobetzea.

Eibarko manifestazioaz gain, pentsiodunak Bilbon, Donostian, Gasteizen, Iruñean, Ondarroan, Tafallan, Altsasun eta Lizarran irtengo dira kalera. Gainera, astelehenaz geroztik Gipuzkoako Pentsiodun taldeko zenbait kidek itxialdia egiten dihardute Donostiko Egia auzoko Txoko Internazionalistan. Bertan, txandak eginez, biharko mobilizazioen berri eman dute, giroa berotzen joateko asmoz.

Errebalorizazioan nahasketak

Pentsiodunek azaleratzen duten egoera ez da samurra. 2018koa ere, antzera. “Pentsioen murrizketak %4ko galera ekarri zigun erosteko ahalmenean, KPIaren konpentsazio gisa %0,25 ezarri zelako”, diote. Egoera horren aurrean pentsiodunek “aski da” esan zuten eta mobilizatzen hasi ziren. Euskal Herri mailan sare sendoa osatu dute eta eibartarrek zerikusi handia izan dute mugimenduaren indartze-prozesuan.

Eibarko Pentsiodunen Taldeak ekintza ugari egin ditu azken lau urteotan, ez bakarrik herrian, baita Euskal Herrian eta Espainian zehar ere. Horrela, hazten eta garatzen joan dira, eta denbora izan dute pentsiodun diren aldetik eragiten dieten arazoei buruz hausnartzeko.

Pentsioak KPI errearen arabera ez handitzearen ondorioz, azken 10 urteetan pentsiodunek erosteko ahalmenaren %7,32 galdu dute, eta galera hori %3,1ekoa izan da 2021an.



Eibarko Pentsiodunen Taldea astelehenero biltzen da Untzagan. EKHI BELAR

Baina zer esan nahi du KPIak ez direla handitzen KPI errearen arabera? Pentsiodunek argitzen dutenez, "aplikatuko den KPIa ez da 2011ko erreformaren aurretik erabiltzen zen ohiko KPIa, ordezko bat baizik. KPIa erreferentzia bat baino ez da izango eta errebalorizazioa aurreko ekitaldian erregistratutako batez besteko inflazioa erabiliz egingo da, ez KPIaren

urteko igoera erabilita. Espainiako Kongresuan onartu berri den erreformarekin, pentsioak KPI errearekin behin betiko aldentzen dira. Adibidez, 2021ko abendura arte KPI erreala %5,6 igo zen, baina pentsioak %2,5 besterik ez ziren igo. Beraz, pentsiodunek erosteko ahalmena %3,1 galdu genuen".

Hori ez da gauza berria. 2011n eta 2012an pentsioen

erosteko ahalmena %4,3 murriztu zen; 2013an %0,7 handitu; 2014, 2015, 2016 eta 2017an %1,7 murriztu; eta 2018an, 2019an eta 2020an %0,08 handitu. "Pentsiodunen mugimenduari esker", eurek diotenez.

Horren aurrean, 2022an erosteko ahalmen gehiago ez galtzeko, zera proposatzen dute: 2021ean pentsiodunei

%4,7ko ordainsaria ematea aurreikusitako KPIaren (%0,9) eta benetakoren (%5,6) arteko aldea konpentsatzeko; eta 2022ko urtarrileko pentsioen balioa %5,6 handitzea, lege berriekin aurreko urteko KPIa aplikatzearen ondorioz. Hala eginenez gero, urte hasieran erosteko ahalmenaren galera %1,22 murriztuko litzateke, 2022ko KPI ezagutu arte. ■

Mireia Ormaetxea Luis
7. urteurrena
2015-I-14

Zure argiak,
zure oroitzenak
eta zure irribarre
eder-goxoak
gure bihotzak
argitzen dituzte.

**BETI ZUREKIN,
ETXEKOAK**

FUNEUSKADI
Grupo Asentia

FUNERARIA MUGICA
Funeruskadi

TANATORIO EIBAR
TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Intsumisioaren garaipenaren memoria liluragarria

Datorren asteko martitzenean, hilak 18, "2 urte 4 hilabete eta egun bat" dokumentala aurkeztuko dute Coliseoan, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Ordu eta erdiko iraupena duen Lander Garrok zuzendutako lanean intsumisioa, derrigorrezko soldaduskaren aurkako borroka eta desobedientzia zibila lantzen dira, sei lagunen esperientzietatik abiatuta. Guztiak espetxeratu zituzten soldaduskari uko egin izanagatik, "denek nahiago izan zutelako kartzela ejerzitua baino". Proiekzioa zuzendaria bertan dela egingo da eta sarrerak gonbidapenarekin eskuratu behar dira. Antolatzaileek, bestalde, garrantzi berezia ematen diote ondoren izango den solasaldiari eta jendeari deia egiten diete bertan parte hartzeko.

Aipatutako sei lagun horien uko egiteko arrazoen artean bakoitzarenak oso bereak izan ziren: bakezaletasuna, pentsaera anarkista, abertzaletasuna edo sinesmen erlijiosoak, besteak beste. "Zergatik sakrifikatuko zenituzke zure bizitzako 2 urte eta lau hilabete?" galdetzen dio dokumentalak ikusleari; izan ere, denbora hori pasa zuten kartzelan intsumiso izatea erabaki zutenek. Haien borrokari esker lortu zen Espainiako Estatuan derrigorrezko soldaduska bertan behera geratzea. Guztiek erakutsi zuten ausardia eta tema handia, harik eta Estatuari borroka irabaztea lortu zuten arte. Eta hori islatzen da 2020ko ekainean estreinatu zen lanean.

Hainbat urtetako borroka

Orain dela mende laurdena pasatxo hasi ziren soldadutzaren kontra egiteko mugimenduak. Kontzientzia eragozleak hasieran, eta intsumisoak ondoren. Ez ziren lehenak, ez guztiak, gerotxoago bezala, baina orduan hasi zen masiboagoa izaten. Inguruan zeuden bideetako bat hartutako mutilak, zalantzan zeudenak ere bai. Talde anti-miliak sortu ziren herri guztietan, eta Euskal Herri osorako beste hainbat elkarte. Horixe zen airean zebilena. Soldadutzari



Martitzeneko emanaldiak soldadutzaren aurkako mugimenduaren inguruko solasaldia hartuko du jarraian

ezetza esateko geldialdi, manifestazio eta jaiak egiten ziren modu koloretsu, irudimentsu eta dibertigarrian.

2001eko martxoaren 9ko 247/2001 Errege Dekretuak amaiera eman zion derrigorrezko zerbitzu militarri Espainian. Dekretu hark aurreratu baino ez zuen egin urteko abenduaren 31rako legez aurreikusitako zegoen behin betiko amaiera. 1990eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, soldaduskarekin amaitzeko aldarria gero eta zabalagoa eta ozenagoa zen; eta Eibarren soldaduskaren aurkako sentimenduak mugimendu antimilitarista eta intsumiso sendoa sortarazi zuen.

Derrigorrezko zerbitzu militarra ez zen inoiz oso onartua izan. Eibarrek soldadutzarekin erresistentzia-ibilbide luzea izan du beti: boluntario liberalen semeetatik hasi (eibartar askok XIX. mendearen azken herenean gozatutako salbuespena), Marokoko iheslariekin jarraitu, eta 90eko hamarkadako mugimendu intsumisoarekin amaitzen dena. Erabateko errebeldiari iritsi gabe, beste eibartar askok ere estrategia ugari erabili zituzten denboran zehar zerbitzu militarretik libratzeko. Esaterako, azken soldadualdietako ehunka mutilek (2000ko azken 149tatik, 112) luzapenen bidez atzeratu nahi izan zuten kuartelerako bidea. Udalak zirenez "aberriaren" deia helarazteaz arduratzen zirenak, Eibar-ko Udal Artxiboan gaur egun 37 bat metro lineal gordetzen dira soldaduskak 144 urteetan eibartarren artean sortutako dokumentazioarekin.

Mugimendu asanblearioa

Intsumisioaren azken aurrekaria kontzientzia-objektoreen mugimendua izan zen, Francoren erregimenaren azken urteetan hasitakoa; kontzientzia-arrazoiak direla-eta soldadutza ez egiteko aukera legez onartzea nahi zuten. 1984an Kongresuak eskubide hori onartu zuen, baina soldadutzaren ordez 18 hilabeteko zerbitzu soziala egitera behartu zituzten objektoreak.



Orduko sasoiako protesta bat koartelean bertan, soldaduen aurrean.

Euretako batzuk, baina, kontra egin zioten horri, "ordaindutako postuak kentzen zirela" argudiatuz; eskainitako amnistiari ezetz esan zioten. Ejerzitoak berriro deitu zietenean, uko egin zioten bai soldadutzari, baita objektuari ere. Delitugile bihurtu eta prozesatuak izan ziren, nahiz eta epai-prozesuetan eritzi publiko gero eta argiago azaltzen zen derrigorrezko soldadutzaren aurka.

Soldadutza egiteari ezetz esateak urtebeteko kartzel-zigorra zekarren gutxienez. Ordezko

zerbitzu sozialari ezetz esateak, bestalde, 2 urte, 4 hilabete eta egun bateko presoaldia zekarren. Gero eta gazte gehiagok egin zioten aurre soldadutzari, agerian lagaz justizia militarra ez zuela zertan epaitu behar oraindik zibilak zirenak. Horrek ohizko epai-mahaiei eman zien paso; hori bai, kode militarra erabiliz jarraitzeko.

Intsumisioa mugimendu asanblearioa izan zen, inongo alderdi politikorik kapitalizatu ez zuena. Estatuko hiri garrantzitsuetan intsumisioen asan-

Eibarren ere sutsu bizi izan zen mugimendua

Eibarren ere intsumisioa inoiz baino indartsuago zegoen 1995. urtean, esaterako. Inoiz baino epaiketa, atxiloketa eta intsumisioaren aldeko ekintza gehiago izan ziren urte horretan; eta intsumisioaren aukera hartu zuten gazteak ere gero eta gehiago izan ziren. Besteak beste, Su Ta Gar-eko Aitor Gorosabel eta Asier Osororekin batera, Joseba Azpilikueta uda hasieran atxilotu zuten hirurak epaitegiko atean lotuta egon ondoren, eta gau batez Martutenen sartu zituzten. Azaroan, bestalde, Enrike Gisasola ez zen epaiketara joan eta, intsumisoei egiten zizkieten epaiketen aurka protesta egiteko, Untzagan egon zen 24 orduz ezer jan gabe. Aitor Hernandez zinegotzia ere atxilotu egin zuten abenduan epaiketara ez joateagatik.

1996an Eibarko intsumisio mordoak atxilotu eta epailearen aurretik pasatu behar izan ziren. Horren aurkako protesta asko egon zen, bakoitza aurrekoa baino imaginatiboagoa: preso jantzita Untzagan, udaletxean zintzilik, San Fermin entzierroa eginez Ertzaintzaren koartel aurrean... Talde Antimilitaristak "ausardia" eskatu zion Udalari, antimilitarismo kontuetan inplikazio handiagoa izateko. Udalak inhabilitatutako intsumisioak ez baztertzeko erabakia hartu zuen, baina instituzio militarrekin loturarik etetea eskaerari ezetz esan zion.

1997ko urrian Guardia Zibilak Patxi Argarate intsumisioa atxilotu zuen, bere kontrako epaiketara agertu ez zelako. Atxiloketa gertatu eta Intxaurrendoko koartelera eraman zuten, baina gaua ez zuen koartel ezagun horretan eman, Ondarretakoan baino. Ordura arte guardia zibilek ez zuten intsumisio bakar bat ere atxilotu

Eibarren. Dena dela, urtean zehar hainbat intsumisio atxilotu zituen Ertzaintzak, zitazio edo epaiketetara ez agertzeagatik. Urte amaieran, esaterako, sei intsumitu zeuden "busca y captura" egoeran

1998an objektio-bulegoa zabaltzea onartu zuen Udalak, PSE-EE eta EAJ-PNVren aldeko botoekin. PPko ordezkariak abstentziora jo zuen eta HB, EA eta IU-EB alderdiek kontrako postura erakutsi zuten.

Lehen intsumisio preso

Gaur egun Eibartik kanpo bizi den **Joseba Lazkano** izan zen kartzeleratu zuten lehenengo eibartarra. "Preso sartu zuten Euskal Herriko bigarren intsumisioa izan nintzen; aurretik, dena dela, kontzientzia-eragozle batzuk ere kartzeleratu zituzten". Guztira 16 hilabeteko zigorra jaso zuen, "baina lau hilabete egin nituen barruan, hurrengo hiruak hirugarren graduan egiteko". Haste-ko, Iruñeara bidali zuten eta, ondoren, hirugarren graduko tartea Iruñea eta Basauriren artean bete zuen.

Bizitutako hura "sasoi borrokalarizat" jotzen du, "gauzak aldatzeko gogoz, ilusio handikoak. *Milia* kentzea lortu genuen, baina beste asmo asko bidean geratu ziren". Onartzen du antimilitarismoa izan zela horretarako arrazoi nagusia, "gay izateak bere eragina izan bazuen ere". Eta herri mailan laguntza handia jaso zituela dio, "mobilizazioez gain, Udalak ere adierazpenak onartu zituelako".

Garroren dokumentala ikusi gabe du oraindik eta martitzenean Eibarren egotea espero du. "Anaiari eta bioi grabatu gintuzten, nahiz eta azkenean pelikulan ez garen agertzen".



Ezkerrean, Xabi Bastida eta Joseba Zinkunegi. Erdikoan, Aitor Gorosabel abeslaria. Eta eskumako irudian, Patxi Argarate.



bleak osatu zituzten, inguruan euren artean koordinatzen ziren foro antimilitaristak bilduz. Zerbitzu militarra desagertzeko bezperan hamar mila intsumisotik gora zeuden Espainian. Intsumisioa antimilitarista izan zen, batez ere.

Bi urte estreinatu zela

“120 bat emanaldi daramatzagu”, dio **Lander Garro** dokumentalaren egileak, harrituta “oraindik toki askotatik deitzen digutelako”. Kontuan izan behar da hemendik gutxira bi urte beteko direla *“Bi urte lau hilabete eta egun bat”* estreinatu zela, baina egia da ere “pandemiaren erdi-erdian harrapatu gintula, eta hainbat tokitan bertan behera laga behar izan genuela”. Hori bai, Eibarren kasuan argi du Garrok: “Berandu ibili dira”.

Orain arte eskainitako emanaldietan “autoafirmazio ariketa polita dihardu izaten jendearentzat, azken batean garaipen baten kronika delako, eta hori ederra da”, dio egileak. “Ez gaude garaipenez hornituta, batez ere herri xeheak gobernuko aparatu indartsuenei aurre egin behar izan dionean; kontuan izanda, gainera, erakunde mi-

“Herri xeheak gutxitan irabazi izan die gobernuko aparatu indartsuenei”



litarra zegoela tartean”. Soldadutzak urte mordoa zeramatzala indarrean ere badio, horrek zuen pisuarekin, baina dokumentalean “argi adierazten da galdutako borrokak lehiatzen ez direnak direla, irabaztea ere lortu daitekeela”.

Soldadutza amaitu zenetik mende laurdena igarota, dokumentala ikusten dutenen sententzia “nostalgia” hitzarekin laburbiltzen du Landerrek.



Zigortutako intsumisioen taldea Iruñeko kartzelan.

“Soldadutza gizonen kontua bazen ere, intsumisioak emakumeei ere eragiten zien”

Kontuan izan behar da jende askorentzat gaia ezezaguna dela. “Artxiboko irudiak erabiltzean, galdutako gaztaroaren eta bizi-moduaren lilurak harrapatzen zaitu”. Aipatutakoari “antolatzeko gaitasun baten” lilura ere gehitzen dio dokumentalaren egileak. Guzti horrek “indarkorrelazio askoz ere orekatuagoaren” lekuko bihurtzen dukiusea, “gaur egun galdutako punch-aren penaz” jabetzeaz gainera.

“Borroka politiko baten memoria egitea” izan zen Lander Garroren hasierako asmoa, batez ere “sasoi hartakoa gogora-

tzeko eta klabe edo gako batzuk eskaintzeko gaur egun ere horrelako bide bat egiteko aukera dagoela mahairatzeko”. Egitasmo horretan aipatzekoa da lanean emakumeek duten presentzia handia. “Nahita” egindako apostua izan zen, “dokumentalgintzan orokorrean emakumea gehienetan baztertua izan delako, inongo aitorpenik merezi ez balu bezala”. Testuinguru aproposa eritzi zioten gaur egungoa horretarako eta bide horretatik jo zuten, “hasieratik ikusi genuelako kriston emakumeak geneuzkagula, premisa politiko horretan lantzeko ikaragarriko pertsonaiak”. Batez ere, soldadutza gizonen kontua bazen ere, intsumisioak emakumeei ere bazegokielako, “munduan ikusmolde matxistaren aurkako ekimen bezala”. Gaur egungo mugimendu feministaren indarra 90. hamarkadako intsumisioen mugimenduarekin parekatzen du Garrok.

Dokumentalaren zuzendaria bera ere intsumisioa izan zen, eta pelikulako protagonistetako batekin, Gaizka Arangurenekin, izandako harremanetik jaso zuen enkargua. 2012an eraitsi zuten Iruñeko kartzela eta urte horretakoak dira grabatutako irudiak, sei protagonistek euren buruei egindakoak. Horko irudiak dira lanaren oinarri: “Iruñekoak, gainera, munduan intsumisio gehien izan zituen kartzela izan zelako”. Egileak asmatu duela uste du “historia politiko bat emozioetatik abiatuta kontatzerakoan”. Dokumentalaren hasierako konplexutasunak amaieran bere zentzua hartzen du eta “ikuslea pozik geratzen da sariarekin”.

GASOLEOEN BANAKETA

kantoi

20.000 L.

2.000 L.

943 20 73 74 94 671 02 77

Otaola etorbidea, 13 · Bis

GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOA

ASTEGUNETAN: 22:00-06:00

ASTEBURUETAN: 22:00-08:00

KĀMĀLA Yoga Eskola

628 027 950

Asua Erreka 3, Eibar

kamalaeskola@gmail.com



ERRAZTASUNA

INBERTSIOA

AURREZPENA

EROSOTASUNA

ABIATUrekin, askoz gehiago!

A-636 Beasain-Bergara autobian ere bai.

Urtarrilaren 18an jartzen da abian A-636 Beasain-Bergara autobiko bidesari berria.

Ibilgailu guztiak nahitaez ordaindu beharko dute, motozikletek izan ezik. Bidesaria **FREE FLOW** sistema bidez, hau da, matrikula irakurtzeko arku bidez kudeatuko da.

Gipuzkoan bizi diren autobiairen erabiltzaileentzat aukerarik onena **BIDEGIren ABIATU** gailua edukitzea da. Gainerakoentzat, nahikoa izango da edozein VIA-T gailu edukitzea.



- ✓ **AURREZPEN
HANDIAGOA**
(ABIATUrekin soilik)
Tartekako deskontuak.
Hileko gehieneko gastua.

- ✓ **INBERTSIO
HANDIAGOA**
Bildutako dirua errepidea
hobetzeko eta mantentzeko
erabiliko da.

ABIATUri eta bidesari berriari buruzko informazio gehiago:

www.bidegi.eu 

☎ 943 105 106
✉ info@bidegi.eu

Eibarko XXVI. KIROL SARIAK



argazkiak:
Silbia Hernandez

2021 – abenduak – 31

Gabon Zahar egunean azken urtean egin izan ez genuen ekitaldia berreskuratu genuen Coliseoan, Eibarko Kirol Sarien 26. edizioaren sari-banaketarekin. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako aukera hori aprobetxatu zen urte guztian zehar gure herriko kirol taldeek egiten duten lan nekazina saritzeko. Guztira 28 sari banatu ziren: 25 kirol modalitate, sari berezia, euskerakoa eta sustapena. Pandemiak, jakina, izan zuen bere zeresana egun horretan ere: bi sari (saskibaloikoa Iñaki Sanchez-entzat eta wu-shukoa Teresa Barradorentzat) ezin izan zituzten jaso aipatutako bi irabazleek; hala ere, ondoren jaso ahal izan dute. Zorionak saritutako guztiei, merezita duzue-eta.



Sari Berezia
AMAJUR MAYO



Gimnasia Erritmikoa
I. ALTUNA, S. ARANGUREN, N. ARGUIZ, J. HEREDERO, I. DEL PINO, A. BAROJA



Euskera Sarria
IBON ARAKISTAIN



Atletismoa
IGOR AMORROSTA



Waterpolo
URBAT-URKOTRONIK SENIOR MAILAKO TALDEA



Tenis
N. BLANCO, L. GANDIAGA, A. MARTIN, I. IBAÑEZ



...eta kitto!
EDURNE VIDAL



Eskia
JULEN CHACON



Eskubaloia
VICTOR URIARTE



Foballa
IÑIGO UGARTEBURU



Herri Kirolak
HODEI EZPELETA



Hiru Txirlo
ALEX CAMPOS



Igeriketa
ELENE OYARZABAL



Judoa
IKER MARTINEZ



Jugger
IRATI JUARIISTI



Karatea
ROSI SANCHEZ



Kulturismoa
ENEKO BAZ



Mendia
JAVI CHAROLA



Pilota
IBON IBARRA



Silbestrimoa
SANTIAGO BLANCO



Squash
YOSU GIMENEZ



Triatloia
TXOMIN OSORO



Txakurkrosa
ANDONI MAYO



Txirrindularitza
JOKIN AMORROSTA



Xakea
LANDER AJA



Sustapena
GRUPO MECALBE





SD EIBAR



AMAJA PÉREZ CARLA MORENO RUTH ALVAREZ GIBRALT AIDA NOBILIA NEREA GANTXEGI ELBA VERGARA CAROL GARRICIO ANE CAMPOS BALENA
JUAN ARAUJO ANDREA CEDEÑO JAUME BORRERO ISMEL MAZOLA H. MARTINEZ ANA JUNYENT AMAIA GOROSTIZA MARIKA QUILES NONO PONT LAURA MORENO AMAIA FERNÁNDEZ JOSU TRUEBA XAVI CAMPS
ARENÉ ALTONAGA KUNDANANJÍ SARA NAVARRO HONOKA SHEILA ELORZA ANE PEREZ ADT M. RODRIGUEZ A. BERNABÉ M. LLOMPART NONO MATLOU



SD EIBAR



G. ANDUEZA J.L. GARATE A. CID U. ORMAZABAL M. CALVO H. MARTINEZ J. ZABALA A. AZKARGORTA A. GOROSTIZA G. GARITANO R. FERREIRA X. VALENCIA A. GANDIAGA B. JUL M. SANCHEZ I. DIEZ
OLABE QUIQUE AKETXE CORPAS EDU EXPOSITO TEJERO SIELVA ROBER CORREA ARBILLA TOKO GARCIA FEULLASSIER Y. RAHMANI JAVI MUÑOZ
YOEL ETXEITA LLORENTE STORCHINGV FINAN SOL E. BURGOS ATIENZA SERGIO A. F. VERANCIJO BLANCO LESCHUK GLAUDER CANTERO



Arrate Eibar Eskubaloiko emakumezkoen lehen taldeak urte eta erdi eman du partidurik galdu gabe. Maila Igotzeaz gain, liderra da gaur egun.




Gurean jokaturako III. Eibarko Hiria Sari Nagusian gaur egun osatu daitekeen podiumen onena erakutsi zuen probaren amalerak, munduko hiru onenekin.



Ipurua Gimnasia Klubeko kirolariak lehen lerroan jarraitzen dute; Gipuzkoako eta Euskadiko txapelak jazteaz gain, estatuko onenen artean izan dira.



Uribat-Urkitronik waterpoloko emakumezkoen taldeak bikain erantzun dio taldean izandako aldaketa guztiei eta bere mailako onenen artean dago.



Eibar Fobali Taldeko emakumezkoen lehen taldeak liberdrola Ligari eusten dio; jokalarri garrantzitsuak galdu arren, jakin izan du estilo jokoarekin jarraitzea.




Eibar Rugby Taldeak bigarren urtea du 1. Mailan eta, estatuko talde onenekin lehia bizian, liga irabazteko azken fasean sartzea du helburutzat.



ZURICH

Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar



Hodei Ezpeleta "Bihurrik" maila handiko txapelak jantzi ditu.



Odei Jainaga, marka berria egiteaz gain, Olimpiadetan izan zen.



Mikel Oyarzabalek Kopako finaleko gola sartu zuen Errealearentzat.



Eneko Baz-ek kulturismo naturalaren munduko txapela jantzi zuen.



Igerian Iker Calvo eta Miren Gaidos estatuko txapelketetan izan dira.



Gurean finkaturako Ibañez anaiak maila erakutsi dute karatean.



Sonia Dominguez eta Andoni Mayo, txakurkrolean gero eta hobeto.



Nekane Muguruza eta Iker Martinez, Manu Agirre euren irakaslearekin.



Thambi Kgatlanaren golek asko lagundu zuten mailari eusten.



Pello Osoro bikain errekeruparuta itzuli zen triatloi lasterketetara.



Etorbizun handia duen Jokin Ajak Bartzelonara egin du jauzi.



Fernando Llorente fitzaketa delgarriena izan da Eibar FT-n.



365 EGUN IREKITA

- GUZTIZ EKIPATURIKO 900m²-ko gimnasioa
- INGURUNE PAREGABE batean giroturiko zentroa

goizeko 06:00etatik
gaueko 22:00etara

Matsaria, 32 - 1B

SPORTS CENTER

943 430 987

<<< AMAIUR MAYO • Errugbilaria >>>

“Finalerdietara iritsi gaitezkeela uste dugu eta tituluaren bila joango gara”

Abenduaren 31n 26. Eibarko Kirol Sariak banatu zituen ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta Amaiur Mayo errugbilariak jaso zuen sari nagusia. Herriko errugbiaren ikur eta emakumezko taldearen liderra, Eibar Rugby Taldeko jokalariak esker onez jaso zuen saria eta familiarekin partekatu zuen lorpena.

SILBIA HERNANDEZ

Zorionak Eibarko Kirol Sarietan sari nagusia jasotzeagatik!

Saria emango zidatela esan zidatenean harritu egin nintzen, ez nuen espero. Hala ere, sari banaketan esan nuen bezala, saria ez da niretzat bakarrik, taldean lortutako zerbaite da. Bai, ni hartu naute erreferente moduan, baina errugbia taldekirola da eta talde barik ezinezkoa izango litzateke sari hau lortzea. Oraindik ezin dut sinetsi sari hau lortu izana, demaseko ohorea da!

Gainera, sari banaketan familia izan zenuen alboan: anaia Andonik beste sari bat jaso zuen eta Aitziber ahizpari lore-sorta eskaini zenion. Nola bizi izan zenuen?

Polita izan zen. Andonirena... beti egon da nire gainetik! (barrreak). Oso kirolaria da eta zentzu horretan bera izan da erreferentea familian. Orain, txarkurkrosean demaseko lana egiten dihardu eta polita da horrelako kirolak ezagutzera ematea.

Lehen errugbian egiten zuen. Zerikusia izan zuen zuk errugbian hasteko?

Berak foballean egiten zuen lehenik eta errugbian hasi zenean aitari esaten nion nik ere errugbian egin nahi nuela. Sasoi hartan oso txikia nintzen, baina aurrerago jakin nuen nesken taldea sortu behar zu-



tela eta probatzera joan nintzen. Gero beste erreferente batzuk izan ditut, baina nire anaia izan da gakoa nik errugbian jokatzeko.

Zein beste erreferente izan duzu?

Hasierako urteetan ez nuen emakumezko errugbilaririk erreferente moduan, inguruko ez aparte. Gero, Getxoko taldean jokatzeko duen neska bat ezagutu nuen, Barbara Pla, eta bera izan da erreferentea niretzat.

Orain zu zara erreferentea ume askorentzat. Horrela ikusten duzu zure burua? Ardurara ematen dizu horrek?

Ez nintzen hortaz jabetzen, baina eskoletara errugbiari buruz berba egitera joan izan garenean bai ikusi dut ezagutzen nautela edo sare sozialen bitartez jarraitzen nautela. Klubeko umeen taldeetako jokalariekin bai sentitzen dut ardura puntu hori, eurentzat erreferentea naizelako. Beraz, gauza asko zaindu egin behar dira, baina norberaren izaerari eutsiz gero ez dago arazorik. Demasa da umeek horrela ikustea.

Nolakoak izan ziren zure hasierak errugbiaren munduan?

Lehenengo entrenamenduan 30 neska baino gehiago elkarrekin ginen eta bigarrenaz zazpi besterik ez (barreak). Ez du zerikusirik gaur egun dugun jardunarekin, baina polita izan zen. Ez genuen entrenatzailerik finkorik ere! Guretzat zerbait berria zen eta motibatuta geunden.

Sasoi hartan errugbia denbora-pasa zen edo serio hartzen zenuten?

Nahiko denbora-pasa zen. As-tean birritan entrenatzen genuen eta batzuetan hiru lagun besterik ez ginen elkartzen. Horregatik, Arrasateko neskekin elkartzen ginen taldea osatzeko. Ondo pasatzeko egin genuen errugbian eta ez zegoen lehiakortasun handirik. Urteekin aldatu egin dugu



ELKARRIZKETAREN BIDEOA IKUSTEKO



izaera hori, lehiakortasuna irabaziz eta ondo pasatzeari uko egin barik.

Nola bizi izan duzu taldeak izan duen eboluzioa?

Poliki-poliki eman den eboluzioa izan da eta aldaketa hori ez da bat-batekoa izan. Cristina Guntin entrenatzailea etorri zenean demaseko aldaketa eragin zuen klubean eta gure taldean: entrenamendu motak aldatu zituen, gimnasioan gogor hasi ginen lanean... Lehen urtea izan zen zailena, gauzak modu batean egitera ohituta geundelako, baina niri asko gustatzen zait lan fisikoa egitea eta asko motibatu ninduen.

Cristinaren etorreraz gain, zein izan da taldearen arrakastaren gakoa?

Talde guztiaren iraunkortasuna eta gogoia. Askotan partiduetan esaten dudana bezala,

“Iazkoa ikusita, aurtengoa gogo gehiagorekin egin diogu aurre denboraldiari, gauza handiak lortzeko asmoz”

erdia baino gehiago gogo kontua izaten da.

Azken urteotan hainbat fitxaketa egin dituzue, nazioarteko jendea iritsi da taldera, baina oinarrian Eibarko blokeak jarraitzen du. Nolako garrantzia du horrek?

Berebizikoa da harrobiaren lana. 16 urtez azpikoak entrenatzen ibili nintzen eta jokalaria batzuek lehen taldean jokatzeko dute dagoeneko. Atzerritik datozen jokalarien ekarpena asko eskertzen dugu, esperientzia eta beste ikuspuntu bat ematen digutelako, baina gure oinarriak sendoak izatea garrantzitsua da. Beste talde batzuekin alderatuz Eibarren zerbait berezia izan dugu, beti egon gara batuta eta zelaian igartzen da.

Iazkoa zuen estreinaldiko denboraldia izan zen Iberdrola Liga eta finalerdietara

iritsi zineten. Demaseko emaitza da, baina zer falta izan zitzaien gehiago lortzeko?

Pentsatzen dut estreinako urtean liga irabaztea nahiko zatarra izango litzatekeela (barreak). Psikologikoki ez geunden prest. Finalerdietako partiduan ez genuen jakin neurketa eramaten. Irabazten hasi ginen, atsedenetik bueltan berdindu egin ziguten eta azkenengo momentuan galdu genuen tontakeria bategatik. Hala ere, uste dut ondo egon zela ez irabaztea, bestela erretratatzeko moduan egongo ginateke! (barreak).

Nola ekin diozue aurtengo denboraldiari?

Liga hobeto ezagutzen dugu eta asko aldatzen dela badakigu. Hori bai, iazkoa ikusita, aurtengoa gogo gehiagorekin egin diogu aurre denboraldiari, gauza handiak lortzeko asmoz. Orain lehen lau sailkatuen artean gaude eta liga luzea da. Bigarren itzuliarekin hasi berri gara, baina finalerdietara iritsi gaitezkeela uste dugu eta tituluaren bila joango gara.

Maila pertsonalean zein helburu jarri dizkiozu denboraldiari?

Pandemiaren ondorioz iazko denboraldia murriztu egin zuten eta motza egin zitzaidan. Entrenatzea eta teknika hobetzea asko gustatzen zait, eta taldearekin apatutako helburuak lortzeko egingo dut lan.

Euskadiko eta Espainiako selekzioarekin ibili zara. Espainiakoarekin, gainera, hondartza-errugbian eta zazpiko errugbian. Nola moldatzen zara modalitate horietan?

Hondartza-errugbiaren arauak guztiz ezberdinak dira, guk ere nola jokatzeko behar izan genuen. Zazpiko errugbia, bestetik, hamabostekoa baino gehiago gustatzen zaidala esan dezaket. Errugbiaren oinarriak ditu (paseak, plakaketak, meleak...), baina beste gauza bat da.



Maria Alonso

MARIA ALONSO

Osasun mentala pandemia garaian

Pandemia garaian gaude, ez dago dudarik. Uste dut ez dagoela inor munduan hori ez dakienik.

Eta pandemian egonda, zaindu egin behar gara. Baina, zer da zaintzea?

Gaur egungo egoerak isolamendura bultzatzen gaitu, kontaktu sozialak murriztera, besarkadak eta musuak ez ematera... Momentu honetan egin beharreko gauzak dira, konsziente naiz, baina, osasuna al da hau?

Dudarik gabe, osasun fisikoa garrantzitsua da, guztion artean zaindu beharrekoa, guztion ardura... Baina, azkenaldi honetan, gure bizitzan COVID-19a sartu zenetik, osasun mentala alde batera lagatzen ari gara, geroz eta gehiago, geroz eta modu bortitzagoan.

Pandemiak beldurtasun burbuila batean sartu gaitu, eta orain dela gutxira arte babesa esan nahi zuen hori (lagunak, familia,

"Orain dela gutxira arte babesa esan nahi zuen hori (lagunak, familia, besarkadak...) eraso bilakatu da"

besarkadak...) eraso bilakatu da. Beldurrez bizi gara, kontagioaren beldurraz, kontagiatzearen beldurraz, gaixotzeko beldurraz, konfinatzeko beldurraz... Eta ez hori bakarrik, beldur hori, nahi edo nahi gabe, gure seme-alabei transmititzen ari gara. Hauxe al da osasun mentala?

Hainbat autoreren arabera, osasun mentala "oreka emozional, kognitibo eta konduktualeko egoera bat da, gizabanakoari bere familia-, gizarte- eta lan-ingurunean arduraz moldatzea ahalbidetzen diona, baita ongizatea eta bizi-kalitatea izatea ere".

Beraz, osasun fisikoa eta osasun-sistema ardatz izaten ari den garai hauetan, ez dihardugu osasun mentala erdigunean jartzen, eta, denbora aurrera doan heinean, gero eta nabarierago da gure jendartean.

Garbi dago osasun fisikoa eta osasun-sistema zaindu behar ditugula, guztion ardura da, baina baita jendartearen osasun mentala zaintzea ere.

Galerak, galkarga, babesgabatasuna... Nagusi dira azken hilabeteotan eta horiek tristura eta antsietatea areagotzen dituzte.

Hori dela eta, segurtasun-neurriak zainduz, adi egon ea zure ingurukoak ondo ikusten dituzun. Zaindu maite duzun hori!



Eneko Sanchez

ENEKO SANCHEZ

"Sen onaren pasaporte" eskatuko balute...

Inolako teoria konspiratibotan eroriko ez naizen arren, esan beharra daukat gehiegizkoa iruditzen zaidala! Nahikoa dela!

Azkenaldian, Covid ziurtagiriaren harira inposatzen ari zaizkigunak ez du parekorik. Aspaldi honetan pairatu dugun norbanakoaren askatasunen zapalkuntza handienetariko baten testigu gara. Osasunaren izenean, eta isilpeko xantxia bat dela medio, gizarte bezala onartu eta onartzen dugun eskubideen murrizketa izugarria ari gara jasaten. Tabernariak

"Tabernariak, polizia bihurtu ditugu, eta txertatu gabeak eta umeak, arrisku potentzial"

polizia bihurtu ditugu, eta txertatu gabeak eta umeak, arrisku potentzial. Tabernak leku infekzioso, eta merkataritza-guneak elkargune paradisiako. Eztulak terrorismo isila, eta musukoak gure zaintzaile. Agintarien zehaztasun faltak gizartearen erru eta erantzukizun. Etxeko askok, ikus-entzunezkoen erreparatuta, masterra ere atera dute medikuntzan, erizaintzan zein biologian.

Ba iruditzen zait azkenaldian gauza bat ahazten ari zaigula. Gure iritzi zein erabakietan oinarri izan beharko lukeen sen ona hain zuzen ere. Arestian aipatutakoa, olatu berriak etorri ahala, geroz eta nabarmenago alboratu dugun zerbait dela deritzot... "Sen onaren pasaporte" eskatuko balute, iruditzen zait makina bat pertsona geldituko lirakeela inora sartu ezinik...

Agian iritsi da mahai gainean beste ikuspuntu bat jartzeko garaia.




Midori tailerreararen izena emateko epea zabalik

>>> Urtarrilaren 25erako, martitzena, "Midoriak" egiten ikasteko tailerra antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak Illunabarrin programaren barruan. Tailerrak bi orduko iraupena izango du, 18:00etatik 20:00etara, eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak hitzaldi gelan egingo da.

Midoria Japonian oso ezaguna den bidaiatzeko koaderno da. Barruan eskuz egindako liburuxka batzuk izaten ditu. Kanpoko azala eta barruko liburuxkak nola egin eta horiek lotzeko enkoadernaketa-teknika ikasiko dute parte-hartzaileek. 16 urtetik gorakoek parte hartu dezakete eta izen-emateak 3 euro balio du.

Izena emateko 943200918 telefonora deitu edota elkarteak@etakitto.eus helbidera idatzi dezakezue. Osasun-neurriak direla-eta plaza mugatuak izango ditu ikastaroak.



Elgoibarko Makina Erremintaren museora joango dira Berbalagunak

>>> Bi irteera egingo dituzte Berbetan Mintzapraktika programako partideek datozen asteetan. Izan ere, urtarrilaren 18an eta 28an, goizean bata eta arratsaldean bestea, Elgoibarko Makina Erreminta museoa bisitatzeko aukera izango dute berbalagunek, eta bertan dauden makinak lanean ikusteaz gain, gure eskualdeko historia industrialari gertuagotik ezagutzeko aukera ere izango dute.

Euskara praktikatzeko taldeetan urte osoan eman daiteke izena, doan da eta modu ezinhobea euskara praktikatzeko,



lagun berriak egiteko eta primeran pasatzeko. Probatzea nahi baduzu ez galdu aukera eta deitu 943200918 telefonora edo idatzi elkarteak@etakitto.eus helbidera, argibide guztiak eta behar duzun laguntza eta aholkuak jasoko dituzu



Barixakuak Jolasian gaur Txaltxa-Zelaiko parkean

>>> "Barixakuak Jolasian" jolas-jardueren beste saio bat izango dugu gaur arratsaldeko 17:00etan Txaltxa-Zelaiko auditoriumeko parkean. Jolasak HH3tik LH2ra bitarteko umeei zuzenduta egongo dira eta ordubeteko iraupena izango dute. Urteko lehen saioa izango da gaurkoa, eta atzetik etorriko dira Torrequakoa (urtarrilak 21) eta Urkizukoa (urtarrilak 28).

Gurasoak Berbetan familietan euskararen erabilera sustatzeko programaren barruan kokatzen da jarduera hau, baina irekia da eta adin-tarte horretako edozein umek har dezake parte.



Urteko lehen saioa egin du Harixa Emoten tertuliak

>>> Urte berria hastearekin batera egin da literatura-saioren lehenengo tertulia. Nerea Arrien idazlearen (Lekeitio, 1976) "Jende likidoa" irakurri dute tertuliakideek eta idazlearekin batera aztertu dute liburua, Antxon Narbaizaren gidaritzapean. Kattalin Miner idazlearen "Turista klasea" liburua izango da hurrengoa. Lan horren inguruko tertulia otsailaren 8an egingo da.



Mercedes Kareaga Bekaren lehen deialdia 2022an kaleratuko du Udalak

Udalak, UPV/EHuren laguntza akademikoarekin, Mercedes Kareaga eibartar ekintzailearen izena duen ikerketa historikoko beka deituko du 2022ko jardunaldian. Bekarekin, Eibarko herriarentzat interes berezia duten eta herriarekin edo eskualdearekin zerikusia duten ikerketa-proiektuak sustatu, ikertu eta zabaldu nahi dira. Horretarako, lehen mailako ikerketa-iturrietako bat Eibarko Udal Artxiboa izango da.

Beka bi urtekoa izango da eta ikerketa-eremua, berriz, Eibarko Udala (Ego Ibarra)-EHUko Batzorde Mistoak dagokion edizioan aukeratuko dituen tokiko intereseko historia-gaiei buruzkoa, betiere, generoaren ikuspegitik landuta.

Hala ere, aurreneko deialdian, Mercedes Kareagaren biografia izango da kaleratuko den ikerketa, haren izena daraman bekaren oinarrien filosofiarekin bat eginez.



San Blas opilen ikastaroa egingo dute Arrate Kultur Elkarteak

Arrate Kultur Elkarteak San Blas opilak egiteko ikastaroa antolatu du Edurne Zenarruzabeitiaren eskutik. Ikastaroa urtarrilaren 29an izango da, 11:00etatik 13:00era elkarteko lokaletan. Izena emateko edo informazioa eskatzeko arratekultu@gmail.com helbidera

idatzi edo 638 284 912 telefono zenbakira deitu daiteke.

Bestalde, egunotan Alberto Ibañezen margolanak ikus daitezke Topalekuan. Erakusketa domekara arte egongo da zabalik, gaur 19:00etatik 21:00etara eta asteburuan 12:00etatik 14:00etara ere.



Aratosteetarako kartel lehiaketa

Kultura Batzordeak Aratosteetarako kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du. Lanetan "Aratosteak Eibarren 2022" azaldu beharko da derrigorrez eta gaia norberaren aukerakoa izango da. Kartelak euskarri gogor baten gainean edo formatu digitalizatu batean (JPG, 300 ppp-ko bereizmenarekin) entregatu beharko dira, elektronikoki (<https://formularioak.eibar.eus/eu/kartelakaratosteak>) edo, bestela, Pegoran herritarren zerbitzurako bulegoan. Irabazleak 600 euroko saria jasoko du eta, horrez gain, 11-14 urte bitarteko eta 10 urteko beherako mailetako irabazleentzat ere sari bereziak banatuko dituzte. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 28ra artekoa da. Informazio gehiago nahi izanez gero, Udalaren webgunean begiratu.

Go!azen 8.0 antzezlanaren atzeratuta

Urtarrilaren 22rako Glu-glu konpainiaren eskutik egiteko zen "Go!azen" antzezlanaren dataz aldatu dute. Kultura Saitetik azaldu dutenez, "antzokien aforo edukiaren murriztapenek antzezlanaren atzeratzea eraman gaitu, funtzio hauek antzokiaren %100-eko sarrera salmenta izan zutelako eta guztia saldu zelako lehenengo egunetan". Gauzak horrela, saioak martxoaren 27ra atzeratu dituzte eta urtarrilaren 22ko sarrera berberak balioko dute.

Dena dela, otsailaren 28ra arte eska daiteke sarreraren dirua bueltatzea, kultura@eibar.eus helbidera idatzita (Internet bidez erosi bada) edo zuzenean Coliseoko leihatilan.



Coliseoaren Laguna 2022 txartela

Udalak antolatzen dituen edozein ikuskizun edo kontzertutan eta Coliseo antzokiko zine komertzialaren sarreretan %30eko beherapena lortzeko aukera ematen duen 2022rako Coliseoaren Laguna txartela eska daiteke. Horretarako Pegorara joan beharko da. Tarifak eta beste informazio guztia Udalaren webgunean daude.

<<< ANE PIKAZA • Aktorea >>>

“Antzezlanak Altsasukoaz hitz egin ahal izateko aukera ematen digu”

‘La dramática errante’ konpainiak ‘Altsasu’ antzezlan eskainiko du hilaren 20an eta 21ean Coliseo antzokian (20:00etan egun bietan). 2016ko urriaren 15ean Altsasun gertatutakoa du oinarri ikuskizunak eta iragan garaikideari buruzko ezagutza eta hausnarketa sustatzea du helburu, oroimenaren erabilera publikoaren bidez.

Altsasuko kasuaren orbanak oraindik itxi gabe daudelarik, nolako lana egin behar izan duzue gertakizuna taula gainera eramateko?

Kontu handiz landu dugu gaia. Badakigu hurbileko jendeak eta gertakizunaren protagonistek ikuskizuna ikusiko dutela, jendea oraindik oso ukitua dagoela eta gaur eguneko zerbait dela. Aldi berean, urte hauetan jende askok ahaztu egin du gertatutakoa eta, zentzu horretan, gaiaren inguruan berba egitea beharrezkoa dela ikusten dugu. Horrelako gaiek boom bat dute eta gero berehala ahazten dira, eta uste dugu ez garela ahanztura horretan erori behar. Gaur egun gauzek denbora laburrean irauten dute eta gai honek denon partetik hausnarketa me-rezi zuela uste genuen.

Antzezlanak nolako ekarpena egiten dio Altsasuko kasuari?

Antzerkiak distantzia ematen du eta errazagoa da gai jakin batzuen inguruan berba egitea. Obra berari buruz berba egiteak jarrera batean edo bestean jartzeko gaitu eta hori dagoeneko bada hausnarketa bat. Berba egiteko maila asko daude eta lokaletik globalera jo dezakegu.

2016ko gau hartan gertatutakoa kontatzen duzue antzezlanean?

Gau hartan gertatutakoa da abiapuntua eta hortik aurrera epaiketari zehar bidaiatzen

dugu. Dena espazio zuri batean gertatzen da, ez da taberna ikusten, ezta etxea edo epaitegia ere. Argiztapenarekin eta aktoreen lanarekin jolasten dugu.

Nola mugitzen zarete errealtatearen eta fikzioaren arteko mugan?

Maria Goiricelaya egile eta zuzendariak ikerketa-lan sakona egin zuen, baina taularatzeko prozesuan gauza batzuk fikzionatu egin zituen, obrak berak hausnarketari espazio handiagoa lagatzeko. Mariak, lortutako sumarioari fidela izanda ere, bere ikuspuntua taularatu du.

Ikerketa-lana egiteko orduan, kasuko protagonistekin egoteko aukera izan zuen egileak?

Gurasoekin kontaktua izan zuen eta eurek sumarioa eman zioten, baina kasuaren inguruan sortu zen guztiarekin egin zuen ikerketa: hedabideen jarduna, sare sozialetan esaten zena... Beraz, ez da sumarioak esandakoari lotu, kasuaren inguruan sortu zen mundu horretara jo du. 24 ordutan Altsasu telebistako platoon bihurtu zen eta horren inguruan hausnartzen dugu, eta baita justiziaren eta gizartearen inguruan ere. Gauza konkretu batek gauza askotaz berba egiteko abiapuntua ematen digu. Ez gara kasua kontatzera mugatu eta publikoak igarri du. Izan ere, saioa amaitu eta ordu batzuetara idatzi izan digute, lagun artean horren inguruan



berba egiten jarraitzen zutela esateko.

Orokorrean nolako harrera izan du antzezlanak?

Gure aldetik oso harrera ona jaso dugu. Jendea oso eskertuta dago egin dugun lanarekin eta pozik gaude. Erantzukizun batekin, noski. Antzezlan hau taularatzeko Altsasukoaz hitz egin ahal izateko aukera ematen digu eta, horregatik bakarrik bada ere, merezi du, ados gauden edo ez esateko besterik ez bada ere. Bestetik, aktore moduan, guretzat oso lan potentia da. Pertsonaia guztiak lau aktoreen artean egiten ditugu eta horrek demaseko kontzen-

trazioa eta joko eszeniko handia eskatzen digu.

Gaiak polemika piztu du azken urteotan. Arazorik izan duzue taularatzeko edo tokiren batean eskaintzeko orduan?

Gasteizera heldu ginenean obra ez egitea eskatu zuten zenbaitek, baina kultura zinegotziak eta programatzaileak aurrera egitea erabaki zuten. Horrela izan ez balitz, zalaparta egongo litzateke, zentsurari buruz egongo ginelako berbetan, baina ez zen horrela izan. Gukez genion buelta gehiegirik eta biderik eman polemikari eta ez dugu horretan pentsatu beharrik ere, aurrera egiten jarraitu behar dugu.



Lourdes Ortiz de Zarate Arcelus

(2021-12-27)

*"Berak eskua ematen zidan
eta hori zen maitasuna"*

FAMILIA ETA LAGUNAK



CAMILO ALVAREZ OTERO

3. urteurrena: 2019-01-12

*"Zu joan zara, baina ZUREGANAKO GURE
MAITASUNA ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko
zuk izandako ilusioa eta bizipoza"*

ZURE EMAZTEA, SEME-ALABAK ETA BILOBAK



FRANCISCO BERISTAIN ALBIZU "PATXI"

(4. URTEURRENA: 2018-1-12)

*"Betirako gure bihotzetan.
Maite zaitugu"* **ETXEROKAK**

URTEURREN MEZA domekan egingo da, hilaren 16an,
eguerdiko 12:00etan hasita, Karmeldarren parrokan.



GUILLERMO SORRIQUETA BARCENA

IV. URTEURRENA: 2018-1-8

"Beti gure bihotzean"

Maite, Ricardo eta senideak



Mireia Ormaetxea Luis

7. urteurrena: 15/01/14

*Urteek aurrera egin arren, gure artean jarraitzen duzu,
zure irribarre goxoa eta bizitzeko grina ahaztezinak baitira.*

MAITE **ZURE KUADRILA** ZAITUGU





Urtarrilak 14/20

BARIXAKUA 14

ZINE-FORUMA

18:30 "Rompiendo las normas" (Philippa Lowthorpe). Dinamizatzailea: Izaskun Rodríguez Elkoro. Portalea (areto nagusia)..

ZAPATUA 15

NEGULEKUAK

Aurretik txanda hartu behar da derrigorrez. Hitzordua hartzeko: <https://hitzorduak.eibar.eus/astelenaparkea/> eu. Erreal Plazia, San Andres eskola eta Astelena pilotalekua.

URTEKO BATZARRA

11:00 Eibarko Txirrindulari Elkartearen urteko batzarra (bigarren deialdia 11:30ean). Portalea (areto nagusia).

MANIFESTAZIOA

12:00 Pentsiodunen mobilizazioak hasi zirela 4 urte bete direla eta, eskualde mailako manifestazioa. Untzagatik hasita.



DOMEKA 16


DOMEKAK KIROLIAN

17:45/19:45 Kirola eta jolasak, 8-11 urte arteko haurrentzat. Ipurua kiroldegia (kantxa berdea).

ASTELEHENA 17

BIDEO-FORUMA

18:30/20:00 makumeen Istorioak: Kleopatra. Dinamizatzailea: Patricia Perex Coto. Portalea (areto nagusia)..



MARTITZENA 18

IBILBIDE OSASUNTSUAK

10:00 Herritar guztientzat zabalik, 5 kilometro inguruko ibilbidea, Minbiziaren Kontrako Elkartek antolatuta. Elkartearen lokaletik abiatuta (Ardantza, 11).

DOKUMENTALA

19:00 "Bi urte, lau hilabete eta egun bat" (Lander Garro). Proiekzioa eta ondoren solasaldia zuzendariarekin. Gonbidapenarekin. Coliseo antzokia.



EGUAZTENA 19

URTEKO BATZARRA

16:30 Untzaga jubilatutako bazkideen urteko batzarra. Untzaga jubilatutako etxea.

EGUENA 20

HITZALDIA

10:00/12:00 "XXI. mendeko estatu-kolpearen eredu berriak: erregimen aldaketak eta kanpoko esku-sartzea". Hizlaria: Asier Blas de Mendoza politologoa. Ikasten elkarteak antolatuta. Sarrera libre. Armeria Eskola.

ANTZERKIA

20:00 "Altsasu" (La dramática errante). Euskeraz. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoa..



ERAKUSKETAK

Urtarrilaren 16ra arte:

- "COSMOLOGÍAS", Alicia Martín López (Portalea)
- "MUGA/FRONTERA", Viviane Straub (Portalea)
- ALBERTO IBÁÑEZ-en margolanak (Topalekua)

Urtarrilaren 31ra arte:

- JULIAN RUIZ-en argazkiak (Depor taberna)
- "KALEAK", Fernando Solanaren argazkiak (Portalea jatetxea)

ESKUALDEKO agenda

ELGOIBARREN

KONTZERTUA

17an (zapatua) / 12:30 Herriko Antzokia

Arineketan taldea. Iñar Sastre pianojolearen eta Jagoba Astiazaran txistulariaren proiektu bateratua da Arineketan ikuskizuna.



ERMUAN

ERAKUSKETA

17tik 30era / 18:00-20:00 Lobiano Kulturgunea

"Nigerren, mundu guztian bezala, emakumeen erabakia". Bakerako Lankidetzaren Batzarrekin antolatuta.



Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 10
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Eguraldia (euskalmet.net)



Hildakoak

- **Juana Salgado Casado.** 83 urte. 2021-12-29.
- **Jesus Astigarraga Aldabaldetretu.** 89 urte. 2021-12-30.
- **Juan Uriolagoitia Urriolabeitia.** 85 urte. 2022-12-1.
- **Esther Basauri Ormaetxea.** 94 urte. 2022-12-2.
- **Iñaki Juaristi Elorza.** 84 urte. 2022-12-3.
- **Milagros Rodriguez Gonzalez.** 94 urte. 2022-12-3.
- **Jose Manuel Aja Lopez.** 81 urte. 2022-12-4.
- **Felisa Gorosabel Egiazu.** 95 urte. 2022-12-4.
- **Maria Puy Guillermo Oses.** 89 urte. 2022-12-6.
- **Luisa Unzetabarrenetxea Gardoki.** 94 urte. 2022-12-6.
- **Esti Diaz Richard.** 44 urte. 2022-12-7.
- **Mari Luz Saenz de Viteri Gonzalez.** 77 urte. 2022-12-7.
- **Jesus Maria Lasa Kejarazu.** 71 urte. 2022-12-9.
- **Ramon Perez Gonzalez.** 90 urte. 2022-12-9.
- **Isabel Palacio Villar.** 95 urte. 2022-12-10.
- **Consuelo Prado Placer.** 87 urte. 2022-12-10.

Jaiotakoak

- **Noah Santos Gonzalez.** 2021-12-18.
- **Jule Ibaibarriaga Lopez.** 2021-12-27.
- **Kepa Garcia Otxandiano.** 2021-12-29.
- **Noreen Laouinate.** 2022-1-1.
- **Lara Cristina Cruz Arratibel.** 2022-1-3.
- **Zana Tony Moday.** 2022-1-7.
- **Paul Sanchez El Ghabali.** 2022-1-8.

Farmaziak

- BARIXAKUA 14**
EGUNEZ | **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ZAPATUA 15**
EGUNEZ | **Morgado** (S. Agustin, 3)
- DOMEKA 16**
EGUNEZ | **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ASTELEHENA 17**
EGUNEZ | **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- MARTITZENA 18**
EGUNEZ | **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- EGUAZTENA 19**
EGUNEZ | **Lekunberri** (Isasi, 31)
- BARIXAKUA 20**
EGUNEZ | **Barandela** (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2022an,
Mendinueta (Urkizu, 6)

Izadi
LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEBORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak etxera

San Andres
Gozotegia

• **tartak**
• **enkarguak**
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure sende edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobe eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



ENEKO, mutil haundi, zorixonak!! Zelan pasatzen dan denboria. 5 urte egin zenduazzen hillaren 11n, txapeldun!! Patxo haundi bat



Zorionak, **IERA!** Gaur 2 urtetxo betetzen dozuz-eta. Besarkada haundi bat famelixa guztiaren partez. Oso ondo pasa eguna!!



Zorionak, **MAIALEN**, hillaren 3an 10 urte egin zenduazzen-eta. Musu potolo bat famelixa guztiaren eta, batez be, Jonen partez.



Zorionak, **MAREN**, bixar 10 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **JANA** (domekan 14 urte beteko dozuz) eta **PABEN** Ortiz de Zarate (17xan lau hamarkada beteko dozuz). Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MALEN!** Bixar 7 urte haundi beteko dozuz-eta. Primeran ospatu zure eguna. Segi horren alai, asko maite zaittugu.



Zorionak, **IZASKUN**, hillaren 6xan urtiak bete zenduazzen-eta. Musu haundi bat famelixaren eta laguneren partez.



Zorionak, **ANER**, gaur 11 urte betetzen dozuz-eta. Egun bikaiña pasau! Danon partez. Eta musu haundi bat Liberen partetik.



Zorionak, **GARAZI!!!** Astelehengan 10 urte haundi bete zenduazzen-eta. Bete bezain alai eta guapa jarrai deizula. Etxekuen partez!!



Zorionak, **MARKEL**, mutil haundi, hillaren 8xan 10 urte bete zenduazzen-eta! Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, zure anaia **DANEL**en partez.



Zorionak, **AINHOA**, domekan urtiak beteko dozuzelako. Oso egun bikaiña izan deizula! Guztioren partetik.



Zorionak, **ALICIA**, abenduaren 31n urtiak bete zenduazzen-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **SABRINA** Amenchar Stitou. Atzo 16 urte! Amatxo, Luis Mari, aitxitxa-amama eta izebaren partez. Asko maite zaittugu.



Zorionak, **ANDER!** Ondo ospatu domekan zure urtebetetze eguna, bai famelixan eta baita lagunekin be.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **15ean:** 19:45, 22:30
- **16an:** 20:00
- **17an:** 20:30

"100 días con la Tata"

Zuzendaria: Miguel Angel Muñoz



2 ARETOA

- **15ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **16an:** 17:00, 20:00
- **17an:** 20:30

"Vuelta a casa de mi hija"

Zuzendaria: Eric Lavaine




ANTZOKIA

- **15ean:** 17:00 (1 Aret), 19:45, 22:30
- **16an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **17an:** 20:30

"El contador de cartas"

Zuzendaria: Paul Schreder



ANTZOKIA

- **15ean:** 17:00
- **16an:** 17:00

"Klara y la Navidad"

Zuzendaria: Will Ashurst



Iragarki laburrak


943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisu salgai Sallabenten (Ermua). 3 logela, egongela, sukaldea eta kumuna. Pisu altua eta eguzkitsua. Bista ederrak. Dena kanpora begira. Tel. 605711422.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Garaje handia alokagai San Pion, Ipurua inguruan. Tel. 652775746.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakume euskalduna eskaintzen da zainketarako edota etxeko lanak egiteko. Autoarekin. Orduka ere lan egiteko prest. Tel. 657794652.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 641421135.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 653236030.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 653236017.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643565742.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Orduka. Tel. 632642320.

- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko. Tel. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernetan lan egiteko. Esperientziarekin. Tel. 642846905.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Externa. Tel. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Autoarekin. Tel. 612223075.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Erreferentziak, gida-baimena eta tituluarekin. Tel. 689571882.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin). Orduka. Baita gauz ere. Tel. 602490595.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679214891.
- Neska euskalduna (unibertsitateko irakaslea) eskaintzen da umeak jaso, etxera lagundu eta eskolako lanetan laguntzeko. Baita nagusiei paseoan laguntzeko. 16:00etatik aurrera. Tel. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko. Titulua eta esperientziarekin. Tel. 643574998.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, eraikuntzan lan egiteko edo beste edozein arlotan jardutan. Tel. 631363951.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631109062.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, umak zaintzeko eta bestelako lanetarako. Tel. 660542155.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazio ikastaroa eginda) eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 642-195774.

4.2. Langile bila

- Estetizista behar da. Tel. 605770226.

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

- Ingeleseko partikular irakaslea behar dut Erasmus prestatzeko. Tel. 616479840.

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Egongelarako mahai handia eta erdirako mahai txikia salgai. Biak kristalezkoak eta oso egoera onean. Prezio interesgarria. Tel. 606882043.
- Kawai pianoa salgai. Oso egoera onean. Aulkia oparitzen da. Prezio adosteko. Tel. 667549101.


688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Cambridge Assessment English

Authorised Exam Centre

AUTHORISED CENTRE ES 438

MARTXOKO DEIALDIA
AZTERKETAK Eibar, Durango eta Arrasaten

MATRIKULAK
Urtarrilaren 21era arte

AZTERKETA	DATA	PREZIOA
PET	Martxoak 12 (larunbata) azterketa osoa	100 euro
FCE FS	Martxoak 26 (larunbata) azterketa osoa	190 euro
FCE	Martxoak 5 (larunbata) azterketa osoa	190 euro
CAE	Martxoak 12 (larunbata) azterketa osoa	198 euro

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK

ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83	DEBA:	Akabi	943 19 16 79
	Idiomaster	943 79 07 84		North Street English	652 44 86 46
BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53	DURANGO:	San Jose Maristak	94 681 00 58
EIBAR:	Link Idiomas	943 20 39 59	MARKINA:	Lea Artibai Ikastetxea	94 616 90 02
	Target Schools of English	607 83 36 13	ELORRIO:	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
ERMUA:	Akerlei	943 17 66 32	BERRIZ:	Speak up	94 622 52 94
ELGOIBAR:	Key Academia de Inglés	943 74 30 44	ZUMAIA:	Golden Gate	943 86 50 20
	ILS	943 74 40 40	MUTRIKU:	Gogoz	943 60 43 58
ONATE:	Sounds Great	943 78 20 91			



FISIOTERAPIA

ZENTRUA

Ane Mendia


970 kol. zkia.

Arragueta, 20 - behea

943 530642



ane_mendia@hotmail.com



INDIBA TERAPIAK ARTIKULAZIO
TENPOROMANDIBULARREKO ARAZOAK
TRATAMENDU PERTSONALIZATUAK
K-STRETCH KLASEAK BAKARKA
HIPOPRESIBOAK ETA FISIOTERAPIA
OROKORREAN ERGONOMIA
HOBETZEKO KLASE PERTSONALIZATUAK



UNBE



ORBEA



PADELPISTAK



IGERILEKUA



TENISPISTAK



SPA

ZORIONAK!

eta

2022.

URTE

Kirolari

ON!



Eibarko Kirol Patronatoa
Patronato Municipal de Deportes de Eibar

